

## "Zarautzen erosi zuen", "On egin", "Kate Motzak" eta "Ur azpian" film laburrak Huhezinemaren 8. edizioaren irabazle nagusiak

2015/05/04

Pasa de ostegunean, apirilak 30, Aretxabaletako Arkupe Kultur-etxean Huhezinema 2015 lehiaketaren sariak banaketa ekitaldia egin zen. Sail Ofizialaren Goiena saria Aitor Arregik eraman zuen *Zarautzen erosi zuen* filmarekin. MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleen lehiaketa, ostera, *Kate motzak* irabazi zuen fikziozko filmen atalean eta *Ur azpian* lanak dokumentalen atalean. Basque Culinary Center sariari dagokionez, *On egin* film laburrak jaso zuen sari nagusia. Ikus-entzunezko Komunikazioa graduako ikasleek antolatzen duten lehiaketan, 4.000 eurotik gorako sariak banatu ziren.

Aurten guztira, 111 lan aurkeztu dira. Horietatik, 86 film labur aurkeztu dira Sail Ofizialera (10 hauek sailkatu ziren finalerako); 13 lan, MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleen lehiaketara, eta, azkenik, 12 film labur Basque Culinary Center lehiaketara.

Hemen aurtengo edizioaren palmaren osoa:

### Sail Ofiziala

- Sail Ofizialeko Goiena Saria. **Zarautzen erosi zuen**. Zuzendaria: Aitor Arregi.
- Ikusleen saria. **Oscar Desafinado**. Zuzendaria: Mikel Alvariño.
- Aktore onenaren saria. **Barbara Goenaga Oscar desafinado** filman egindako lanagatik.

### Basque Culinary Center saria

- Sari nagusia. **On Egin**. Egileak: Haizea Arizaga, Eider Ballina, Anne Baskaran, Irati Briñas, Angela Carnovich eta Irati Crespo. (Ikus-entzunezko Komunikazioa graduako 1. mailako ikasleak).
- Ikusleen saria. **Da Casting**. Egileak: Irati Elortondo, Loinaz Elorza eta Mikel Uralde. (Ikus-entzunezko Komunikazioa graduako 2. mailako ikasleak).

### Mondragon Unibertsitateko ikasleen lehiaketa

- Fikziozko lan onena. **Kate Motzak**. Egileak: Amaia Beldarrain, Patricia Lasuen, Jone Amonarriz, Ibon Agirre, Eñaut Abarrategi eta Izar Usobiaga. (Ikus-entzunezko Komunikazioa graduako 4. mailako ikasleak).
- Dokumental onenaren saria. **Ur Azpian**. Egileak: Jon Campo, Ibai Iregi eta Iñaki de Bilbao. (Ikus-entzunezko Komunikazioa graduako 3. mailako ikasleak).
- Ikusleen saria. **Ur azpian**. Egileak: Jon Campo, Ibai Iregi eta Iñaki de Bilbao. (Ikus-entzunezko Komunikazioa graduako 3. mailako ikasleak).



2015. urteko edizioako irabazleak.